

Aste honetan hasi eta ekainaren 14ra bitartean, KALE GORRIKO FUTBITO TXAPELKETA´08 antolatu du Barakaldoko Gazte Asanbladak (BGA).



Gazteek hamaika taldeetan antolatuko dira kanporaketa bidezko txapelketa honetan parte hartzeko. BGA-ko kideek adierazitakoaren arabera "ez dugu lehiakortasun baliorik inondik inorasustatu nahi, baizik eta gazteon arteko harremanak indartu eta kaleak aldarrikapenez beteko dituen ekimena antolatu";

Finala, ekainaren 14rako deitu duten Gazte Egunean izango da eta irabazleek ez dute Herri Bazkaria ordaindu beharrik izango. BGA-ko kideek nabarmendu nahi izan dutenez: "parekidetasunaren bidean, neskez ostatutako talde bat dago";